

Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

1. Sarrera.

2023. urtean, pandemiaren osteko suspertze-seinaleak Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazkatik eta egoera ekonomiko orokorretik eratorritako beste elementu ez hain positibo batzuekin konbinatu dira.

Testuinguru horretan, toki eskumeneko hondakinekin lotutako zerbitzuen esparruan bere zereginak betez jarraitu du Garbikerrek

Ildo horretatik, nahiko garbi ikusi da hobetu egin dela hondakinen gaikako bilketa, oro har; alabaina, hurrengo ekitaldiak erabakigarriak izango dira, Europako erakundeek eskatzen dituzten berreskuratze- eta birziklatze-ratioetara iristeko.

Inguruabar horiek Bizkaiko Toki Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan Integralean (BHPKPI 2030) daude jasota, eta, gaur egun, Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek onartzeko bidearen azken fasean dago.

Plan horretan, erakundeen eta sektorean esku hartzen duten eragileen artean koordinatuta lan egitea aurreikusten da, ildo horretatik informazioaren kudeaketa egiteko, eta, horren bidez, erabakiak hartzerakoan eredu prediktiboak osatzeko aukera izateko.

Beharrezkoa izango da, baita ere, herritarrengana hurbiltzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko ahalegin berezia egitea, eta, horretarako, herritarrak dinamika parte-hartzaileetan sarrarazteko ahalegina egingo da, gizartean kontzientzia handiagoa lortze aldera.

1. Preámbulo.

El año 2023 ha combinado señales de recuperación tras la pandemia con otros elementos no tan positivos derivados del conflicto entre Ucrania y Rusia y la coyuntura económica general.

En este contexto, Garbiker ha continuado realizando la labor en lo que respecta a los servicios relacionados con los residuos de competencia local.

En términos generales se evidencia una mejora en la recogida selectiva de las diferentes fracciones, si bien los próximos ejercicios se muestran como determinantes para lograr alcanzar las ratios de recuperación y reciclaje exigidas por los organismos europeos.

Estas circunstancias están recogidas en el Plan Integral de Prevención y Gestión de Residuos de Competencia Local de Bizkaia (PIPGB 2030) que actualmente se encuentra en la última fase para su aprobación por parte de las JJGG del Territorio Histórico de Bizkaia.

En el mismo se prevé trabajar de forma coordinada entre las diferentes instituciones y agentes implicados en el sector para poder realizar una gestión de la información que posibilite la configuración de modelos predictivos a la hora de tomar decisiones.

Será necesario igualmente un importante esfuerzo en materia de acercamiento y sensibilización a la ciudadanía, incorporándola en dinámicas participativas que logren una mayor concienciación de la sociedad.



Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

Ez dira ahaztu behar, noski, gai horrekin lotutako tratamenduen azpiegituretan egin beharreko hobekuntzak, Bizkaiko Lurralde Historikoa hiri-hondakinen kudeaketaren esparruko etorkizuneko erronken eta eskakizunen ildoan lerrokatu dadin.

Azpimarratu behar da, gainera, hondakinen kudeaketarako aukeren hierarkia komunitarioaren arabera gauzatuko dela Garbikerren lana; haren arabera, prebentzio-ekintzak gauzatu behar dira batik bat, bai eta prestakuntza-jarduketak ere, berriro erabiltzeko, birziklatzeko, baloratzeko eta, azkenik, errefusa (duen arriskugarritasuna murriztu ondoren) modu seguruan ezabatzeko eragiketak aurrera eramateko.

Antolakuntzan lortu nahi ziren helburuez harago joz (lantaldearen gaikuntza sendotzen, erakundearen kudeaketa prozesuak hobetzen eta, zeharka, teknologiaren erabilera hobetzen jarraitzea batik bat), zerbitzuen jardueran aurreikusten den bilakaera zehazten da hurrengo epigrafeetan.

2. Prebentzioa .Ingurumen Hezkuntzako eta Sentsibilizaziorako jarduerak.

2023an bere jardunbide normalera itzuli ondoren, Artigasko Ingurumen Hezkuntzako Zentroak bete-betean funtzionatzen jarraituko du 2024an.

Bisitak Artigasko Ingurumen Hezkuntzako Zentroko Bulego Teknikoak kudeatuko ditu. Eskolei, ikastolei, unibertsitateei, elkarteei, erakundeei eta abarri zuzendutakoak dira, eta zentrora bertara nahiz GARBIKERen instalazioetara (Garbiguneak, TMB instalazioak, hondakindegia, transferentzia-plantak) edo partaidetutako enpresetara (BZB, Berziklatu) joan daiteke.

Todo ello sin olvidar las mejoras que resultarán necesarias en las infraestructuras de tratamiento asociadas para así alinear al THB con las exigencias y retos que plantea el futuro en materia de gestión de residuos urbanos.

Cabe señalar que la labor de Garbiker se llevará a cabo siempre de acuerdo con la Jerarquía Comunitaria de opciones de gestión de los residuos, según la cual se deben desarrollar prioritariamente acciones de prevención, junto con actuaciones de preparación para la reutilización, el reciclaje, valorización y, finalmente, operaciones de eliminación segura para la fracción restante de residuos una vez reducida su peligrosidad.

Más allá de los objetivos inherentes al aspecto organizativo y que tendrán foco en continuar con la mayor capacitación del equipo de trabajo, la mejora de los procesos de gestión de la entidad y la mejora en el uso de la tecnología de forma transversal, se detalla en los siguientes epígrafes la evolución prevista en la actividad de los diferentes servicios.

2. Prevención. Actividades de Sensibilización y Educación Ambiental.

Tras recuperar su actividad normal en 2023, en el año 2024 el Centro de Educación Ambiental de Artigas continuará funcionando a pleno rendimiento.

Las visitas serán coordinadas desde la Oficina Técnica del Centro de Educación Ambiental de Artigas, dirigidas a colegios, ikastolas, universidades, asociaciones e instituciones, etc, tanto al propio centro como a las distintas instalaciones de GARBIKER (Garbigunes, TMB, vertederos, plantas de transferencia) o empresas participadas (BZB, Berziklatu).



Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

Era berean, zentro berri bat abiaraztea aurreikusten da 2024an sentsibilizazioaren esparruan: Waste Lab Bizkaia; hiri-hondakinen katearen kudeaketaz arduratzen diren eragile guztientzat, erreferentziatzko zentro eta topagune izan nahi luke zentro horrek, betiere, arlo honetako helburuak behar bezala bete ahal izatea ahalbidetuko duten sentsibilizazio eta berrikuntza ekintzak abian jartzeko.

Horrez gainera, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko jarduerak egingo dira aurrerantzean ere, publiko desberdinei begira, arlo horri dagokionez BHPKPI 2030 planean jaso diren helburuekin lerrokatuta.

3. Hondakinen bilketa.

3.1. Garbiguneak.

Garbikerrek kudeatutako 23 Garbiguneetan hondakin mota hauek biltzen dira, besteak beste: metalak, egurrak, papera eta kartoia, pilak, linea zuria, linea marroia, pneumatikoak, EEH, fluoreszenteak, karterreko olioak, etxeko olioak, inausketako hondakinak, plastikoak, tamaina handikoak, bateria-metatzailak, tonerrak, eskuko telefonoak, CD eta DVDak, kaseteak eta bideo zintak, jostailuak, kafe-kapsulak, erradiografiak, olio-iragazkiak, etab.

Bederatzi Garbigunetan, gainera, hondakin arriskutsuak ere (pintura, disolbatzaile, itsasgarri, erretxinen hondakinak, etab.) biltzen dira, eta erabiltzeko moduko hondakinak biltzen jarraituko da, xede horretarako prestatutako txabola berezietan.

Basauri, Barakaldo, Durango, Erandio, Gernika, Getxo, Gueñes, Igorre eta Markinako Garbiguneak dira, eta asteko zazpi egunetan irekita egongo dira.

Del mismo modo, en 2024 es previsible el lanzamiento de un nuevo centro en materia de sensibilización, el Waste Lab Bizkaia, el cual pretende constituirse como centro de referencia y punto de encuentro para todos los agentes de la gestión de la cadena de los residuos urbanos, de cara a poner en marcha acciones de sensibilización e innovación que permitan enfocar adecuadamente la consecución de los objetivos en esta materia.

Adicionalmente, se seguirán realizando actividades de sensibilización y concienciación destinadas a diferentes públicos de forma alineada con los objetivos que se definen el PIPGRB 2030 en este área.

3. Recogida de los residuos.

3.1. Garbigunes.

En los 23 Garbigunes gestionados por Garbiker se recogen, entre otros, los siguientes tipos de residuos: metales, maderas, papel y cartón, pilas, línea blanca, línea marrón, neumáticos, RCDs, fluorescentes, aceites de cárter, aceites domésticos, restos de podas, plásticos, voluminosos, baterías-acumuladores, tóners, teléfonos móviles, CDs-DVDs, cassettes, cintas de video, juguetes, cápsulas de café, radiografías, filtros de aceite, etc.

Hay nueve garbigunes en que, además se recogerán residuos peligrosos (pinturas, disolventes, colas, resinas, etc) y se mantendrá la recogida de residuos reutilizables en casetas especialmente preparadas para tal efecto.

Son los garbigunes de Basauri, Barakaldo, Durango, Erandio, Gernika, Getxo, Gueñes, Igorre y Markina, que estarán abiertos al público los siete días de la semana.



Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

Fitosanitarioen bilketarekin jarraituko da Karrantza, Gueñes, Santurtzi, Derio, Mungia, Gernika, Durango, Markina eta Igorreko Garbiguneetan.

La recogida de fitosanitarios se mantendrá en los garbigunes de Karrantza, Güeñes, Santurtzi, Derio, Mungia, Gernika, Durango, Markina e Igorre.

Aurreko urteetako bilakaera aintzat hartuta, kudeatuko den hondakin kopurua 36.000 tonakoa izango dela kalkulatu da, eta erabiltzaile kopurua, berriz, 250.000koa.

La cantidad de residuos a gestionar se estima en 36.000 toneladas siguiendo la evolución de años anteriores y el número de usuarios en 250.000.

Horrez gain, Garbigune mugikorraren zerbitzu ibiltariak jarraitu egingo du 2024an, eta oraindik zerbitzu hori erabiltzen ez duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek zerbitzuarekin bat egiteko bidea sustatuko da.

Asimismo, se continuará con la prestación del servicio itinerante de Garbigune móvil en 2024, promoviendo la adhesión de los aquellos municipios del Territorio Histórico de Bizkaia que aún no hacen uso del mismo.

Horren bidez, herritarrei zerbitzua hurbildu nahi zaie, udalerritik irten beharrik gabe, onartutako hondakin gehienak garbigune batean utz ditzaten.

Este servicio pretende acercar el servicio a la ciudadanía de tal forma que puedan depositar la inmensa mayoría de los residuos admitidos en un garbigune sin necesidad de salir de su municipio.

Garbikerren Garbigune mugikorrak gainera, 4 udalerritan zerbitzu hori ematen duten baliabide propioak daude: Bilbon, Zamudion, Portugaleten eta Gernikan.

Adicionalmente al Garbigune móvil de Garbiker, existen 4 municipios que cuentan con un servicio propio de esta naturaleza (Bilbao, Zamudio, Portugalete y Gernika).

Hala eta guztiz ere, 2023an zehar, garbigune sareari eta, orohar, zerbitzuari buruzko hausnarketa-dinamikarekin jarraitu nahi da, herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko eta hondakinen kudeaketa maximizatzeke.

Con todo, a lo largo de 2024 se pretende continuar la dinámica de reflexión sobre la red de garbigunes y el servicio en su conjunto, en aras de mejorar el servicio provisto a la ciudadanía y maximizar la gestión de residuos.

3.2. Ontzi arinen gaikako bilketa.

3.2. Recogida selectiva de envases ligeros.

2023an, mantendu egingo da gaikako bilketa mota hau edukiontzietan egitea, eta 625.000 biztanleriei emango zaie zerbitzu hori.

Durante 2024, se mantendrá la contenerización para este tipo de recogida selectiva dando servicio a una población total aproximada de 625.000 habitantes.

Garbiker arduratuko da edukiontzi hauetan uzten diren hondakinak biltzeaz eta ontziak sailkatzeke Amorebieta-Etxanoko plantaraino garraiatzeaz.

Garbiker será la encargada de la recogida y transporte hasta la Planta Clasificadora de Envases de Amorebieta de los residuos depositados en estos contenedores.

Bildutako hondakin kopurua 12.000 tona ingurukoa izango da.

La cantidad de Residuos recogidos será de unas 12.000 toneladas.



Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

Kontsumitzaile handien arloan, eraikin publikoetan eta industrialdeetan batik bat, edukiontzien parkea handitzeko dinamikarekin jarraituko da, kultura- eta jai-ekitaldi handietako zerbitzu osagarriekin batera.

Ecoembesekin batera, ostalaritzarako eta jatetxeetarako HORECA proiektuetan eta lurralde historikoko hainbat udalerritan egindako edukiontzi-azterketan laguntzen jarraituko da.

2023an, bilketa-ibilbideak optimizatzeko eta efizienteago egiteko dinamikarekin jarraituko da, bai eta pixkanaka murrizten ere lurpeko edukiontzien ibilbideak.

4. Hiri Hondakinen tratamendua.

4.1. Garbiker-en instalazioak

4.1.1. Errefusaren tratamendua.

4.1.1.1. Transferentzia Plantak.

Durango, Gernika, Zalla, Berriatu eta Igorreko Transferentzia Plantetan biltzen diren hiri hondakinen (errefusa) azken helmuga batez ere Zabalgarbi izango da, eta, neurri txikiagoan, TMB. Gernikan, Berriatuan eta Gernikan jasotako biohondakinak Bizkaiko Konpostegira eramango dira; ostera, Eskualdeko Konpostaje Planten eragin-eremuetakoak horietan tratatuko dira. Gernika, Igorre eta Berriatuko Plantetan jasotako tamaina handiko hondakinak Berziklatun kudeatuko dira.

Gernikan jasotako inausketa-hondakinak ere Bizkaiko Konpostegian kudeatuko dira, eta, Igorre eta Berriatuko Transferentzia Planten eragin-eremuen kasuan, Eskualdeko Konpostaje Plantetan kudeatuko dira.

Se continuará en la dinámica de incrementar el parque de contenedores en grandes consumidores, edificios públicos, polígonos industriales junto con el servicio adicional para eventos culturales y festivos.

Se continuará colaborando junto con Ecoembes en los proyectos HORECA para hostelería y restauración, así como en el estudio de contenerización realizado en diversos municipios del Territorio Histórico.

A lo largo de 2024, se seguirá con la dinámica de optimización y eficientización de las rutas de recogida así como en la reducción paulatina de las rutas de contenedores soterrados.

4. Tratamiento de los Residuos.

4.1. Instalaciones de Garbiker

4.1.1. Tratamiento de la fracción resto.

4.1.1.1. Plantas de transferencia.

El destino final de los residuos municipales (fracción resto) recogidos en las Plantas de Transferencia de Durango, Gernika, Zalla, Berriatua e Igorre, será fundamentalmente Zabalgarbi y en menor medida T.M.B.. Los biorresiduos recogidos en Gernika tendrán como destino Bizkaiko Konpostegia mientras que los generados en las zonas de influencia de las Plantas de Compostaje Comarcal, serán tratadas en las mismas. Los residuos voluminosos recogidos en las Plantas de Gernika, Igorre y Berriatua se gestionarán en Berziklatu.

Los restos de poda recogidos en Gernika también se gestionarán en Bizkaiko Konpostegia y, en el caso de la zona de influencia de las Plantas de Transferencia de Igorre y Berriatua, se gestionarán en las Plantas de Compostaje Comarcal.



Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

Durangoko Transferentzia Plantak Durangoko Mankomunitateari eta Durango, Berriz eta Amorebieta-Etxanoko udalerriei emango die zerbitzua, eta 18.400 tona inguru bilduko dituela aurreikusi da.

Gernikako Plantak Busturialdeko eskualdeko 16 udalerriri emango die zerbitzua, eta 12.500 tona HHS-errefus inguru bilduko ditu.

Zallako Plantak Enkarterriko mankomunitateari emango dio zerbitzua, eta 8.825 tona HHS-errefus inguru bilduko ditu.

Berriatuko Plantak Markina eta Ondarroako udalerriei eta Lea-Ibarra eta Lea-Artibai mankomunitateei emango die zerbitzua, eta 5.625 tona HHS-errefus inguru bilduko ditu.

Igorreko Plantak Arratiako mankomunitateari emango dio zerbitzua, nagusiki, eta 4.200 tona HHS-errefus inguru bilduko dituela aurreikusi da.

4.1.1.2. Tratamendu Mekaniko-Biologiko planta.

2024an, Tratamendu Mekaniko-Biologikorako Plantan 179.000 tona tratatuko direla aurreikusten da.

Esparru honetan, 2023an ere aztertu da ea zer jarduketa egin litekeen materialak sailkatzeko eta errekuaratzeko prozesuan efizientzia handiagoa lortzeko eta sortutako hondakinen kalitatea hobetzeko, hezetasunari eta kloroari dagokienez, horien balorizazio materialerako.

Utilizarán la Planta de Transferencia de Durango la Mancomunidad de Durango y los municipios de Durango, Berriz y Amorebieta, que depositarán unas 18.400 toneladas de residuos municipales-fracción resto.

La Planta de Gernika atenderá a 16 municipios de la comarca de Busturialdea, que depositarán unas 12.500 toneladas de residuos municipales-fracción resto.

La Planta de Zalla atenderá a la mancomunidad de Enkarterri, cuyos municipios depositarán unas 8.825 toneladas de residuos municipales-fracción resto.

La planta de Berriatua atenderá a los municipios de Markina, Ondarroa y a las mancomunidades de Lea-Ibarra y Lea-Artibai, que depositarán unas 5.625 toneladas de residuos municipales-fracción resto.

La Planta de Igorre dará servicio principalmente a la mancomunidad de Arratia, que se estima va a depositar unas 4.200 toneladas de RSU residuos municipales-fracción resto.

4.1.1.2. Planta de tratamiento Mecánico Biológico (TMB).

Se estima en la Planta de Tratamiento Mecánico-Biológico un tratamiento de 179.000 toneladas para el año 2024.

En este campo, a lo largo de 2023 se ha continuado con el estudio de posibles actuaciones que permitan una mayor eficiencia en su proceso de clasificación y recuperación de materiales y, una mejora en la calidad de los residuos generados en términos de humedad y contenido en cloro, para su posible valorización material.



Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

4.1.1.3. Balio energetikoa lortzeko planta (Zabalgarbi)

2024an, Garbikerrekin hitzartutako udalerrietatik 65.000 tona Hondakin Primario balorizatzea espero da, eta, era berean, baita Tratamendu Mekaniko Biologikorako Plantatik (TMB) datozen 69.000 tona inguru Hondakin Sekundario ere.

4.1.1.4. Hondakindegia aktiboak

2024an ere, hondakin tratatuak Artigasko hondakindegia kontrolatua utziko dira, 2023ko ekitaldian zehar egin den bezalaxe. Bestalde, ezkerreko ibarbidearen zigitatze-lanak eta eskumako ibarbidearen lehenengo faseko lanak egingo dira.

Ziur aski, Jatako hondakindegia ez da aktibo egongo, 2023ko ekitaldian gertatu den bezalaxe, eta hondakindegia lagungarri gisa funtzionatuko du.

Abenduaren 31ra bitartean, gutxi gorabehera 500.000 m³ lixibiatu sortuko dira Artigas eta Jatako hondakindegietan, eta Artigasen dagoen lixibiatuen Tratamendu Plantan kudeatuko dira.

Horrez gain, araztegi osagarri bat eraikitzeko prozesua hasiko da Artigasko hondakindegian, eta eduki organiko handiko lixibiatuak tratatzeko aukera izango da horrela.

4.1.1.5. Itxi diren hondakindegia

Itxi ondorengo mantentze-lanak egingo dira Gordexola, Amoroto eta Igorreko hondakindegietan, orain arte bezala; izan ere, abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak agindutakoaren arabera, hondakindegia itxi badira ere, gutxienez hurrengo 30 urteetan horiek mantentzeko lanak egin behar dira.

4.1.1.3. Planta de Valorización Energética (Zabalgarbi).

En 2024, se espera valorizar unas 65.000 toneladas de Residuo Primario procedentes de municipios convenidos con Garbiker, así como alrededor de 69.000 toneladas de Residuo Secundario procedentes de la Planta de Tratamiento Mecánico Biológico (TMB).

4.1.1.4. Vertederos activos.

Durante 2024, se continuará depositando residuos tratados en el vertedero controlado de Residuos de Artigas, tal y como se ha venido realizando a lo largo del ejercicio 2023. Asimismo, se ejecutarán labores de sellado en la vaguada izquierda y la primera fase de la vaguada derecha.

El vertedero de Jata permanecerá previsiblemente inactivo, tal y como ha sucedido en el ejercicio 2023, funcionando como vertedero de respaldo.

Los lixiviados producidos en los vertederos de Jata y Artigas hasta el 31 de diciembre supondrán aproximadamente unas 500.000 m³ y se gestionarán en la Planta de Tratamiento de lixiviados de Artigas.

Se iniciará asimismo el proceso de construcción de una depuradora complementaria en el vertedero de Artigas que permitirá el tratamiento de lixiviados con un alto componente de contenido orgánico.

4.1.1.5. Vertederos clausurados.

Se seguirán realizando las labores de mantenimiento postclausura en los vertederos de Gordexola, Amoroto e Igorre de acuerdo al R.D. 1481/2001 de 27 de diciembre, que obliga a realizar labores de mantenimiento durante al menos los siguientes 30 años a la clausura de los vertederos.



Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

Abenduaren 31ra arte, 2.450 tona inguru lixibiatu sortuko dira Gordexolan, 2.500 tona inguru Amoroton eta 16.800 tona inguru Igorren. Guztiak tratatuko dira Artigasko lixibatuen Tratamendu Plantan.

4.1.1.6. Hondakin geldoen tratamendua.

Berriz eta Orkonerako hondakindegietan mantentze-lanak egingo dira; izan ere, abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak agindutakoaren arabera, hondakindegia itxi badira ere, hurrengo 30 urteetan horiek mantentzeko lanak egin behar dira.

Abenduaren 31ra bitartean, 60.000 m³ inguru lixibiatu sortuko dira Berrizen, eta 3.500 m³ inguru Orkoneran.

4.1.2. Hondakin organikoaren tratamendua

Bizkaiko Konpostegia – Konposta egiteko planta.

Bizkaiko Konpostegian egindako handitze-lanen ondoren, eta Getxo, Igorre eta Berriatuko Eskualdeko Konpostaje-plantak burutu ondoren, zati organikoaren tratamendu-ahalmena hazi egin da Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Planta horiei esker, halaber, konposta ekoizteko prozesua biohondakinak sortzen diren lekura hurbildu ahal izan da, eta gure ingurunera gas-isurketa asko murriztuko da.

Hala eta guztiz ere, 2021ean animalia-jatorriko hondakinei bosgarren edukiontzia irekitzeari esker, 2023ko abenduaren 31ra arte Bizkaiko Lurralde Historikoan bildutako FORS kopurua 20.000 tona ingurukoa izatea espero da.

Los lixiviados producidos hasta el 31 de diciembre, supondrán aproximadamente 2.450 m³ en Gordexola, 2.500 m³ en Amoroto y 16.800 m³ en Igorre. Todos ellos se tratarán en la Planta de Tratamiento de lixiviados de Artigas.

4.1.1.6. Tratamiento de los Residuos Inertes.

En los vertederos de Berriz y Orkonera se realizarán las labores de mantenimiento de acuerdo al R.D. 1481/2001 de 27 de diciembre, que obliga a realizar labores de mantenimiento durante los siguientes 30 años a la clausura de los vertederos.

Los lixiviados producidos, hasta el 31 de diciembre, supondrán aproximadamente 60.000 m³ en Berriz y 3.500 m³ en Orkonera.

4.1.2. Tratamiento de la Fracción Orgánica

Planta de Compostaje y Plantas de Compostaje Comarcal.

Tras las obras de ampliación ejecutadas en Bizkaiko Konpostegia y con el despliegue final de las tres Plantas de Compostaje Comarcal en Getxo, Igorre y Berriatua, la capacidad de tratamiento de la fracción orgánica ha crecido en el THB.

Estas plantas han posibilitado asimismo el acercamiento del proceso de producción de compost al lugar de generación de los biorresiduos y derivarán en una importante reducción en la emisión de gases a nuestro entorno.

Con todo, se espera que en su conjunto y continuando con la dinámica de sensibilización de la ciudadanía, la cantidad de FORS recogida en el THB hasta el 31 de diciembre de 2024, ascienda a unas 20.000 toneladas.



Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

4.2. Partaidetza duten enpresak.

4.2.1. Bizkaiko Zabor Berziklategia, Sozietate Mugatua.

Garbikerrek, Bizkaiko Zabor Berziklategia, EMko (B.Z.B.) kide den aldetik, lankidetzan jardungo du aktiboki, Ontzi Arinen Amorebieta-Etxanoko Ontzi Berziklategia garatzeko lanetan. Planta honetan sailkatuko dira Garbikerrek Bizkaiko Lurralde Historikoan udalerrietan biltzen dituen ontziak, baita Bilbo, Getxo eta Sestaoko udalek bildutakoak ere, eta Barakaldo, Portugalete, Galdakao eta Laudioko bilketa pneumatikoak.

4.2.2. Berziklatu, S.A.

Sozietate honek Bizkaiko Lurralde Historikoko tamaina handiko hondakinak kudeatuko ditu, hala udalek batuko dituztenak nola 23 Garbiguneetan batuko direnak.

Planta honetan, tamaina handiko hondakinak berriz erabiltzeko eta birziklatzeko prestatzen jarraituko da; xede horretarako sortu den Sozietatea denez, ez du irabazteko inolako asmorik.

4.2.3. Metabarri, S.A.

Etorkizunean, 2023. eratutako sozietate hau arduratuko da Biometanizazio Planta kudeatzeaz; planta horixe izango da, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoan sortzen den hondakin organikoaren tratamendurako azpiegitura nagusia.

4.2. Instalaciones de Empresas participadas.

4.2.1. Bizkaiko Zabor Berziklategia, Sociedad Limitada.

Garbiker, como socio de Bizkaiko Zabor Berziklategia, S.L. (B.Z.B.), colaborará activamente en el desarrollo de la Planta Clasificadora de Envases Ligeros de Amorebieta. En esta planta se clasificarán los envases recogidos por Garbiker en los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia, así como los recogidos por los ayuntamientos de Bilbao, Getxo y Sestao y en las recogidas neumáticas de Barakaldo, Portugalete, Galdakao y Llodio.

4.2.2. Berziklatu, S.A.

Esta Sociedad será la encargada de gestionar los residuos voluminosos del Territorio Histórico de Bizkaia, tanto recogidos por los ayuntamientos como recogidos en los 23 Garbigunes.

Dicha Planta continuará preparando para la reutilización o reciclando el residuo voluminoso, sin ningún tipo de ánimo de lucro al ser una Sociedad creada a tal fin.

4.2.3. Metabarri, S.A.

Esta Sociedad constituida en 2023 será a futuro la encargada de gestionar la Planta de Biometanización que constituirá la infraestructura principal de tratamiento de fracción orgánica generada en el Territorio Histórico de Bizkaia.



Garbiker, ABMP
Garbiker, S.A.M.P.

5. Udalerrri eta herri erakundeentzako aholkularitza.

Kontsultak argituko dira, txostenak prestatuko dira, eta bilerak eta bisitak egingo dira udaletako eta herri erakundeetako teknikariek eta langileekin, orain arte bezala.

6. 2024ko inbertsioak

2024rako inbertsio-aurreikuspena 1.000.000 eurokoa da ibilgetu materialean; hondakindegietan egin beharreko lanak egiteko bideratuko da zenbateko hori batez ere.

Inbertsio horiek kapitaleko dirulaguntzen bidez finantzatuko dira.

5. Asesoramiento a Municipios y Organismos Públicos.

Se seguirán resolviendo consultas, redactando informes, manteniendo reuniones y realizando visitas con técnicos y demás personal de municipios y organismos públicos.

6. Inversiones 2024

La previsión de inversión para 2024 es de 1.000.000 euros en inmovilizado material los cuales serán destinados a la ejecución de obras de acondicionamiento de vertederos.

Estas inversiones serán financiadas vía subvenciones de capital.